



BERRIAK

Kontaktua:

Irati Kortabitarte
Elhuyar Komunikazioa

Harremanetarako datuak:

i.kortabitarte@elhuyar.com
(+34) 943363040



9

2014/6/12

Euskal WordNet “hiztegi semantikoa”, denon eskura

Makinek itzulpen automatikoa, informazio-erazketa eta hitzen adieren desanbiguzioa bezala atazak egiteko, betiko hiztegiak baino tresna informatiko boteretsuagoak behar dute izan. Horretarako, UPV/EHUko IXA Taldeak garatutako Euskal WordNet aplikazioa dago, eta orain, doan jaitsi eta kontsultatzeko moduan jarri dute.

Euskal WordNet euskararentzat egin den lehen Ezagutza Base Lexikala (EBL) da. Alegia, informazio lexikala eta semantikoa jasotzen eta antolatzen dituen “hiztegi semantikoa” edo biltegi bat. “Datu-base baten antzekoa da, baina desberdintasuna da hiztegi batean jasotzen den informazioaz gain —hitzen adierak eta adiera horien definizioak eta adibideak— kontzeptuak elkarren artean harremanetan jartzen direla” azaldu du Eneko Agirre IXA Taldeko informatikariak. Adibidez, hatz sarrera kontsultatuz gero, zera esaten digu: “gizakiaren eskua edo oina bukatzen den bost zatietako bakoitza” da. Hori da esanahia, baina horretaz gain, beste hainbat informazio ere jaso dezakegu: hatza gorputz-adar bat dela, hatz lodia hatz bat dela, hatzak eskuen zati bat direla, eskuak aldi berean besoaren zati bat direla, eta hatzak gauzak ukitzeko erabiltzen direla. Azken finean, kontzeptu guztiak euren artean harremanetan jartzen dira hierarkikoki.

Datu-base hori oso baliagarria da hainbat arlotan, hala nola, itzulpengintza automatikoan, informazio-erazketan, hitzen adieren desanbiguzioan eta galdera-erantzun sistemetan. Itzulpen automatikoan, esaterako, sistemak ulertu behar du zer hitz ari den itzultzen eta horretarako horrelako “hiztegi semantiko” baten beharra dauka. “Ezinbestekoa da hitz batek dituen adieretatik egokiena bereiztea kalitatezko itzulpena

bermatzeko" dio Agirrek.

"Europako proiektu batean gure ardura da WordNet erabilia egungo itzulpen automatikoen kalitate hobetzea" gehitu du.

Euskal WordNet eta antzerako aplikazioak garatzeko hizkuntza-teknologia horiek guztiak landuko dira, hain zuzen ere, 2014-2015 ikasturtean UPV/EHUan IXA Taldeak emango duen Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua unibertsitate-masterrean.

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra (HAP) / Language Analysis and Processing (HAP/LAP)

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua unibertsitate-masterraren helburua da hizkuntza aztertzea eta hori ordenagailu bidez tratatzeko dauden teknikak eta aplikazioak ezagutzea. Master hau UPV/EHUko IXA Taldeak antolatu du.

Hizkuntzalaritza eta informatika uztartu nahi dituzten guztiei zuzenduta dago masterra: filologo eta hizkuntzalariak, informatikako eta telekomunikazioetako ingeniariak, matematikariak, itzultzaileak...

Masterrak urte eta erdiko iraupena du eta ikasketak UPV/EHUko Informatika Fakultatean eskainiko dira. Masterra euskaraz zein ingelesez egin daiteke. Bi edo hiru ikasturtetan ere egin ahal izango da, lanean dabiltzan profesionalek ere aukera izan dezaten.

Aurre-matrikula egiteko epea irekita dago jadanik, eta ekainaren 30era arte dago izena emateko aukera. Masterrari buruzko informazio gehiago <http://ixa.si.ehu.es/master/>

Azken bost urtetan masterra bukatu duten ikasleen % 98a arloko enpresa zein erakundeetan ari da lanean.

Interneteko helbidea

ixa.si.ehu.es/ixa

Informazio osagarria

Dokumentuak

Webgune honetako edukiak ezin dira erabili baimenik gabe.
Copyright © 2007 Elhuyar Fundazioa
basqueresearch@elhuyar.com